

INTERNAZIONALIZAZIO PROGRAMA

ATZERRIKO EZARPEN PRODUKTIBOAK ETA KOMERTZIALAK

HELBURUA: Produkzio ezarpenak sustatzea, internazionalizazioaren potentziala aprobetxatuz enpresa lehiakortasunaren palanka gisa.

ONURADUNAK:

Onuradun izan daitezke Gipuzkoan kokatuta dauden **enpresa gipuzkoar txiki eta ertainak (ETEak)**.

Gipuzkoan kokatuta dauden **enpresa gipuzkoar haundien** proiektuak bakarrik onartuko dira: ETEek aurkeztutako proiektuek ez badute agortzen laguntza programa honetarako xedatutako aurrekontu osoa.

PROIEKTUEN EZAUGARRIAK:

Gipuzkoako enpresa nagusiaren partaidetza gehiengoa izango da ezarritako kapitalean.

Gutxieneko inbertsioa, hau izango da:

- 750.000 euro produkzio enpresen proiektuetan, enpresa txiki eta ertainak direnean
- 350.000 euro zerbitzu enpresen proiektuetan, enpresa txiki eta ertainak direnean

Enpresa handien kasuan, gutxieneko inbertsioa %30 gehiagokoa izango da.

LAGUNTZEN ZENBATEKOA:

Diru laguntzen gehieneko portzentajea atzerrian eratutako enpresen baliabide iraunkorretara bideratutako ekarpenen % 40a izango da.

Entitate bakoitzeko gehieneko diru laguntza 100.000 eurokoa izango da.

Enpresak 14.4 oinarri orokorrean aurreikusitako kontu auditatua aurkezten badu, justifikatzeko modu gisa, diruz lagunduko da gastuaren % 100, gehienez ere 3.000 euro.

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA:

Eskaera orria eta hari erantsitako agiriak bide elektroniko, informatiko edo telematikoz aurkeztea lehenesten da: Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (<http://www.gfaegoitza.eus>) sartu eta diru laguntzaren atarira jota.

Eskaerak aurkezteko epea 2020ko martxoaren 3an hasiko da; eta **2020ko apirilaren 3ean** bukatuko da, eguerdiko 12:00etan.